



**11/2020 TXOSTENA, AZAROAREN 13KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN A HOLKU BATZORDEAREN BATZORDE
IRAUNKORRENA.**

**GAIA: AGINDU-PROIEKTUA, JAURLARITZAREN BIGARREN
LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA ETA
EKONOMIA ETA OGASUNEO SAILBURUARENA, LAN ETA ENPLEGU
SAILAREN, OSALAN-LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL
ERAKUNDEA ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU
ZERBITZUA ERAKUNDE AUTONOMOAREN KONTRATAZIO-MAHAIEEN OSAERA
EZARTZEN DUENA.**

I.- AURREKARIAK.

2020ko urriaren 27an, Lan eta Enplegu sailak txosten eskaera bat egin zuen, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren aginduaren proiektuari buruz, zeinaren bidez ezartzen baita Lan eta Enplegu Sailaren, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea erakunde autonomoaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren kontratazio-mahaien osaera.

Eskaera Ondare eta Kontratazioko zuzendariari egin zitzaion, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen lehendakaria baita.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: AAAA_ORD_107865/20_03), honako agiri hauek agertzen dira:

- Agindu-proiektuaren testua.
- Agindu-proiektuari buruzko justifikazio-memoria, Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu zuzendariak sinatua.
- Lan eta Enplegu Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena.

II.- ESKUMENA.

Txosten honi buruz nahitaez informatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a).2 artikuluan xedatutakoaren arabera; izan ere, behin betiko izendatutako kontratazio-mahaiak edo kontratu anitzetarako eginkizunetako mahaiak eratzeko agindu-proposamen bat da.

III.- KONTRATAZIO-MAHAIEIEN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL) –horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora– bere 326. artikuluan kontratazio-organoari laguntza emateko kide anitzeko organo gisa arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Aipatu legearen azken xedapenetako lehenarekin bat etorrita, 326. artikuluko hori ez da oinarritzeko legeria.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. eta 9. artikuluek kontratazio-mahaien erregulazioa xedatzen dute. Lehenak kide anitzeko organo horien osaera arautzen du, bai eta kideen izendapena ere; bigarrenak, berriz, organoaren funtzioen irismena zehazten du.

8. artikuluko oro har xedatzen duenez, prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publizitadedunetan kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute, eta mahai horren eskumena izango da eskaintzen balorazioa egitea. Eta gaineratzen du ezen, lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez duten prozedura negoziatuetan, kontratazio-mahaia eratu edo ez aukeratu ahal izango duela kontratazio-organoak. Kontratazio-organoari dagokio Mahaia osatuko duten pertsonak izendatzeko eskumena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria izan ezik, bulego haren titularrak izendatuko baitu.

Artikulu beraren 2. apartatuan, kontratazio-organoari laguntza emateko organoen osaera-arauak finkatzen dira, eta ezartzen da presidente batek, idazkari batek eta gutxienez hiru kidek osatuko dituztela kontratazio-mahaiak. Eta, horrez gain,

ezartzen da kideen artean honako hauek egon beharko dutela nahitaez: kontratazio-organoari aholkularitza juridikoa emateko betebeharra duen kide bat eta aholkularitza teknikoa emateko betebeharra duen beste bat, eta kontu-hartzaile bat edo kontratazio-organoaren ekonomia eta aurrekontuak kontrolatzeko zeregina esleituta duen pertsona bat. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ondasunak, azpiegitura teknologikoak eta zerbitzuak kontratatzen direnean, IKTen arloan eskumena duen zuzendaritzako pertsona bat izan beharko da kontratazio-mahaian. Pertsona hori eskumena duen kontratazio-organoak izendatuko du, aipatutako zuzendaritzaren titularrak proposatu ondoren.

Kontratazio-organoak eskatuz gero, aipatutako kideez gain, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari bat ere izango da kontratazio-mahaian.

Kontratazio-mahaiko kideak izendatzeari dagokionez, aipatutako 8. artikuluko 3. apartatuaren arabera, behin betiko izenda daitezke, edo berariaz ere bai, justu kontratu bakoitza adjudikatzeko. Era berean, zehazten denez, Kontratazio-mahaiko kideak behin betiko izendatzen badira edo mahaiari kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularraren eta kasuan kasuko sailaren titularraren edo erakundea atxikita dagoen sailaren titularraren baterako agindu bidez eratuko da kontratazio-mahaia, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Halaber, beste baldintza bat gehitzen du: nola osatu den eta kideak nor diren adieraziko da kontratuaren administrazio-klausula zehatzen pleguan, eta kasuan kasuko kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kontratuak egiteko gaitasuna duela egiaztatzeko dokumentazioa kalifikatzeko kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen dituela kalifikatu baino hamar egun lehenago.

IV.- KONTRATAZIO-MAHAIK ERATZEA.

Eusko Jaurlaritzaren sailen berregituraketak, zeina Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren bidez egin baita, eraketa berri bat eman dio sail bakoitzak esleituta duen jardun-eremuari. Lan eta Enplegu Sailari dagozkion funtzioak eta jardun-eremuak, zehazki, dekretu horren 6. artikuluan adierazten dira, eta sail horri atxikitzen dizkio Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea erakunde autonomoa eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoa.

Bestalde, egokitzat jo da Agindu bakar batean biltzea bai Lan eta Enplegu Sailaren bai sail horri atxikitako erakunde autonomoen kontratazio-mahaien konfigurazioa.

V.- AGINDU-PROIEKTUA.

Agindu-proiektuaren bidez, zeinari buruz eskatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena, modu iraunkorrean ezarri nahi da honako hauen osaera: Lan eta Enplegu Sailaren Kontratazio Mahaia, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea erakunde autonomoaren Kontratazio Mahaia eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Kontratazio Mahaia.

Agindu-proiektuak arau-lerruna eta organo eskudunak errespetatzen ditu, kontratazio-mahaiko kideak behin betiko edo mahaiari kontratu anitzetarako eginkizunekin izendatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikulua eskatzen duenaren arabera.

Kontuan hartu da Lehendakariaren irailaren 7ko 21/2020 Dekretua, Jaurlaritzaren bigarren lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko sailburua izendatzeko dena, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 17.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera emandakoa. Artikulu horrek gaztelaniaz dioenez, <<El Gobierno está integrado por el Lehendakari y los Consejeros por él designados, de entre los cuales podrá nombrar un Vicepresidente 1º y uno o más Vicepresidentes, si así lo considerase oportuno>>. Beraz, Aginduaren izenburuan <<VICELEHENDAKARI SEGUNDA Y CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO>> dioen tokian <<VICEPRESIDENTA SEGUNDA DEL GOBIERNO Y CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO>> esan behar du, eta halaxe agertu behar du sinadura-aurreko gisa ere.

Beste sinadura-aurrekoari dagokionez, <<El Consejero de Economía y Hacienda>> izan behar du.

Agindu-proiektuaren 1., 2. eta 3. artikuluen lehen paragrafoan ezartzen denez, kontratazio-organoei kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekietan, mugatueta eta prozedura negoziatu publikitadedunetan. Kontratazio-mahai horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren

Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako eginkizunak beteko ditu, eta, ondoren, kontratazio-mahai hori zer pertsonak osatuko duten zerrendatzen da.

Agindu-proiektuaren 1., 2. eta 3. artikuluetako a) letran kontratazio-mahaietako lehendakari-lanak egiten dituzten pertsonak aipatzen dira. Ikus daitekeenez, kargu publikoen titularrak dira, kasu guztietan. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 326.5 artikulua hiru garren paragrafoan ezartzen denez, <<Ordezkaritzako kargu publikoak dituztenek ezingo dute parte hartu kontratazio-mahaietan, eta ezingo dute egin, ezta ere, eskaintzak baloratzeko txostenik [...]>>. Alde batetik, agindu-proiektuaren arabera kontratazio-mahaien lehendakari izango diren titularren kargu publikoak ez dira "ordezkaritzakoak", SPKLren idazketan jasotakoaren arabera. Bestetik, aipatu den bezala, SPKLaren azken xedapenetako lehenarekin bat etorritik, 326. artikulua hori ez da oinarritzko legeria. Bi inguruabar horiek gorabehera, proposamena egin duen sailari eskatzen diogu azter dezala komenigarria izan daitekeela kontratazio-mahaietako lehendakaritza kargu publikoen titularrei ez esleitzea.

Agindu-proiektuaren 3. artikulua b) letraren lehen zenbakian, gure iritziz, 1. eta 2. artikuluetako b) letren lehen tartekietan ageri den tartekia gehitu behar da, testu honekin: << [...] kontratazio-organoak izendatua; aholkularitza teknikoa emango dio organo horri >>.

Agindu-proiektuaren 1., 2. eta 3. artikuluetako b) letretan Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria aipatzen da. Kontuan hartuta uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikulua 2. apartatuaren lehen paragrafoaren azken tartekia, non kide "kontu-hartzailea" aipatzen baita, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legean araututako kontu-hartzailetzako kontrolaren eginkizuna betetzen duen pertsona, proposatzen dugu agindu-proiektuaren 1., 2. eta 3. artikuluetako b) letrak honela idaztea: <<- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari bat, erakunde horren titularrak izendatua; kontu-hartzailetzako kontrola egingo du >>.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Kudeatzeko Eredua arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren azken xedapenetatik lehenaren 1. zenbakiak uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikulua 2. apartatuaren bosgarren paragrafoari emandako idazketarekin bat etorritik eta horri egokitzeko, azken tartekien idazketa

hau proposatzen da Agindu-proiektuaren 1., 2. eta 3. artikuluetako b) letretako azken apartatueterako, Informazio eta Komunikazio Teknologien Zuzendaritza ordezkatzuko duen kideari dagokionez: << [...] *IKT ondasun, azpiegitura teknologiko eta zerbitzuen kontratazioari buruzko espedienteetan jardungo du.*>>.

Agindu-proiektuaren 1., 2. eta 3. artikuluetako b) letretan, kontratazio-organoari aholkularitza juridikoa ematen dioten pertsonen titulazioari buruzko aipamenetan, honako hau adierazi behar da: <<[...]Zuzenbidean graduatua edo lizentziatua [...]>>.

Horiek horrela, **ALDEKO TXOSTENA** ematen dugu Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren aginduaren proiektuari buruz, zeinaren bidez ezartzen baita Lan eta Enplegu Sailaren, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea erakunde autonomoaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren kontratazio-mahaien osaera, agindu horren edukia txosten honetan jasotako jarraibideetara eta gomendioetara egokitzeko baldintzapean.